



GAZTETXOEN ASTEKARIA ● 801. ZENBAKIA ●

LARUNBATA, 2018KO AZAROAREN 10A

m a n t a n g o r r i
ASTEKO ASMAKIZUNA

Narrastia da
baina letra balitz
S litzateke.
Zer izan daiteke?

GORKA RUBIO / FOKU



Emozioetarako bidaia

Asmakizunaren jatorria: *Auskalo! Igarkizun eta aho-korapiloak* liburutik, Xabier Olaso / Agurtzane Villate (Pamiela).

Erantzuna: *sugea*. ● ● ●



ERREPORTAJEA



'Lur' antzezlan

Izar magikoaren

'Lur' antzezlanarekin biran dabil Xake konpainia. Ane haur transexuala du protagonista, baina bestelako gaiak ere lantzen ditu: heriotza, gatazken kudeaketa, beldurrak...

Testua: **Maialen Unanue Irureta**

Aneri ez zaio gustatzen aitak aukeratuak bainujantzia; aitak ez du ulertzen Ane zergatik tematzen den praka motzak soilik dituenarekin. Bere alua maite duen mutila da Ane, baina aitak ez du onartzen. Eztabaida betean iritsiko dira biak Olga Lekura, aitona Julianen jostailu dendara. Hantxe utziko du Ane aitak, eta haizea hartzera joango da, Juliani mesede bat eskatu ostean: eskolako amantal arrosan Aneren izena jartzeko.

Aitonak bai, aitonak ulertzen du Ane. Egun gutxi barru beteko ditu 8 urte, eta oparia aurreratzea erabakiko du, horrela animatuko duelakoan. Ez dirudi, ordea, asmatu duenik: Aneri ez zaizkio panpinak gustatzen. «Magikoa» dela esango dio, ordea; jartzeko izen bat, eta izar magikoa bilatzen lagunduko diola. Iritzia aldatuko du; Lur deituko dio aurrerantzean panpinari, betidanik desio izan duena izar horri eskatu ahal izateko: «Elurra ken-





bila



● Aitona Julianen Olga Leku jostailu dendak pisu berezia du Lur antzezlanean: espazioan bidaiatzeko ate bihurtuko da aitonarentzat eta bilobarentzat. GORKA RUBIO / FOKU

tzeko makinaren gidari izatea». Espazioan bidaiatzeko ate bihurtuko da Olga Leku horrela, eta munduko hainbat txokotara bidaiatuko dute, izar magikoaren bila. «Aitonarekin dagoenean, pozarekin, jolasarekin eta jakin-minarekin konektatzen du Anek», azaldu du Erika Olaizolak; hark jokatzeko du Aneren rola antzezlanean. Fantasia horretatik jaitzaraziko du, ordea, aita. «Alegiazko bidaia horiek apurtzen dituen momentuetan haserretu egingo da Ane».

Enpatia ariketa

Haurren transexualitatea bada, beraz, antzezanaren gaietako bat, baina ez bakarra. Alargundu berria da aita: amak, Itsasok, ulertzen zuen Aneren egoera; alegia, alua eduki arren, mutila dela. Eta hilda badago ere, antzezanaren parte da: Anek ikus dezake, baita harekin hitz egin ere. «Amaren figurak balio digu aitaren jarrera ulertzeko: alargundu egin da, haur txiki batekin alargundu ere; lanketa bat egin behar du, eta gaiztotzat etiketatu baino gehiago, publikoak harekin enpatia sentitzea nahi genuen, nahiz eta ados ez egon», azaldu du Kepa Errastik: gidoilari aritu da, eta aitaren rola jokatzeko du.



Gai «delikatua» izan daitekeela esan dio jende askok. «Egia da erpin pila bat dauzkan gaia dela, eztabaida asko egon daitezkeela. Baina naturaltasunez landu nahi genuen gaia, eta arazorik edo traumarik ez duen pertsonaia bat erakutsi», nabarmendu du Errastik. Antzezan umoretsua da *Lur*: Getari Etxegarai zuzendariaren ustez, umorea tresna oso indartsua izan daiteke gai serioez hitz egiteko. «Gaiei pisua kentzeko modua da: umeei errazago sartzen zaizkie gauzak horrela. Oso serio jarriko bagina, umeei ez liokete istorioari jarraituko; errazago lotzen dira umorearekin». Barre ugari eragin

arren, badira une hunkigarriak ere, tartean: «Ikusleak bidaia emozional batean sartzea gustatzen zaigu: barrez lehertzen egotea eta, bat-batean, negarrez edo pentsakor», gaineratu du Etxegarai. Errastik ere uste du zenbait emozio transmititzeko tresna ona dela hori: «Umorea erabiliz emozio horietara iristea errazagoa da, ezustean harrapatzen baitu ikuslea».

Haurrentzako antzezan bat iruditzen arren, adin guztietarako da egokia. «Gustatzen zait esatea haurrentzako obra bat egin dugula helduentzat: haurrek oso gustura ikusten dute, eta ulertzen dute ulertzen dutena, adinaren arabe-

ra, baina esango nuke mezua, batez ere, helduentzat dela», azaldu du Etxegarai. Izan ere, denek pentsarazteko moduko egoerak eta mezua landu dituzte antzezlanean.

Anerekin, aitonarekin eta latsarekin batera bidaiatuko dute ikusleek, besteak beste, ipar polora eta Polinesiara. Beste errealitate batzuk ezagutuko dituzte, eta bat egingo dute pertsonaiekin; ikusiko dute, era berean, nola aldatuko diren. «Esango nuke antzezanaren amaiera hasiera bat dela denentzat: pertsona bat aldatzeak halabeharrez eragiten die ondokoei», ebatzi du Olaizolak.

FITXA

- ⊙ **Izenburua:** 'Lur'.
- ⊙ **Taldea:** Xake Produksioak.
- ⊙ **Zuzendaria:** Getari Etxegarai.
- ⊙ **Zuzendari laguntzailea:** Xabier Ormazabal.
- ⊙ **Gidoia:** Kepa Errasti.
- ⊙ **Aktoreak:** Kepa Errasti, Nerea Gorriti, Mikel Laskurain eta Erika Olaizola.
- ⊙ **Eszenografia:** Eider Ibarrondo eta Isabel Acosta.
- ⊙ **Musikaren egilea:** Pascal Gaigne.
- ⊙ **Argiztapena:** David Alkorta.
- ⊙ **Adina:** Adin guztietarako egokia.
- ⊙ **Iraupena:** Ordubete inguru.
- ⊙ **Hurrengo emanaldiak:**
Abenduak 26: Gasteszanan, Donostia.
Urtarrilak 3: Sopelan.
Urtarrilak 13: Aretxabaletan.
- ⊙ **Informazio eta data gehiago:**
www.xakeproduksioak.eus webgunean.